



LEITZAKO IHOTEAK ATE JOKA ARI DIRA

Ilbeltzen 23an hasiko dira eta 26an bukatu; mozorroak, gurdiak, atsaureak, 'eskelariak'... ia guztia prest dute jada >7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena

2010-01-20

VIII. URTEA 1.907. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Ibiurretik Txindokiren magalera doan bidea atontzeko egitasmoa onartu du Espainiako Gobernuak. I. GARCIA

ARAZTEGIA UREZ HORNITZEN ARI DA JADA IBIUR URTEGIA

AZPIEGITURAK Proiektuaren lan osagarriak egingo dituzte orain, eta horietan nagusia urtegitik Larraitzera doan bidea txukuntzea da 4-5



Triangulo plazan egin zuten atzokoan elkarretaratzea. E. EZBIZA

Elena Calen erailketa salatu dute berriz ere

TOLOSA Bilgune Feministak Mundu Martxako Plataformaren deialdiarekin egin du bat 2

Itxialdia egingo dute euskal presoen egoera salatzeko

VILLABONA Etzi hasiko dute 20:00etako batzar irekiarekin eta larunbatean amaituko dute 3

AHT Gelditu!
elkarlanak
mobilizazioa
egingo du
otsailaren 6an

AZPIEGITURAK Larunbatean izango den manifestaziora joateko deia ere egin du 6

«Herriko
gazteak
elkartzeko eta
festa giroa
sortzeko» festa

TOLOSA Patata tortilla lehiaketa, bertsolariak eta musika izango dira 6

Elena Calen erailketa salatzenko beste elkarretaratze bat egin dute

Tolosa » Gaitzespen ekitaldiekin jarraituz, Leitzaldeko Bilgune Feministak elkarretaratzea egingo du gaur.

ERREDAKZIOA

Herenegun hasi ziren eskualdean nahiz kanpoan, Elena Calen erailketa gaitzespen ekitaldiak, eta atzo ere jarraipena izan zuten. Emakumeon Mundu Martxarako Plataformak deituta, Triangulo plazan hainbat herritar bildu ziren hilketa salatzen eta familiakoei nahiz ingurukoiek elkartasuna adierazteko. Gaur berriz, Leitzaldeko Bilgune Feministak deituta, elkarretaratzea egingo dute 20:00etan, Leitzan, herri sarrera-kobiribilgunean.

Era berean, Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimen Laguntzarako Zuzendaritzak Tolosako hilketa argitzeko «bitarteko guztiak» jarriko dituela esan du. Euskadi Irratiko albistegietan adizter eman dutenez, bi atxilotuek ukatu egin dute Cal erail izana. Atxiloteten ostean, sumarioa sekretupean jarri du epaileak.

Euskal Herrian emakumeen kontrako indarkeriaren ondorioz aurten hildako lehen emakumea da Elena Cal. Haren bikotekidea eta beste gizonetako bat atxilotu zituzten igandean.



Emakumeon Mundu Martxako Plataformak deituta elkarretaratzea egin zuten atzo iluntzean, Triangulo plazan. E. EZBIZA

E Erantzunak info

■ **Ezezaguna.** «Eskale bat kalean dagoenean inork ez dio begiratu ere egiten eta orain kasu hau gertatzean denak aztoratuta, Udala, feministak... hauei bost axola hildakoa oportunistak hutsak dira».

■ **Oroitx.** «Ba niri sekulako pena eman dit emakume honek horrela bukatzea, gaixo zegoen eta ez dut uste kalean egon behar zuenik, pasa eta gero denak eskuak burura».

■ **Ezezaguna.** «Politiko profesionalek, gaur ere aurpegia zuritu dute. Jokin Bildarratzi bost axola orain arte emakume hau, baina

orain fokua emango dizkio eta botoak. Hori da haien helburu bakarra».

■ **Ituitu.** «Jo, zuek bai profesionalak bai, agian ez dakizue emakume honi etxe bat eskaini zitziola baina ez zuela nahi izan (Donostiatic zetorren han lortutako etxe batek) baina hori bai, jakin gabe kritikatzeko herri honen zaletasuna omen da... tira herri osoa mobilizatzea Elena Cal-en heriotza salatzen eta emakumeenganako indarkeria gaitzespen guztiak dago zuen iritziz. Ondo da, zuek mundua konpondu arte itxaron beharko dugu».

■ **Bizkaitik.** «Oportunistak izatea gure alde erabili behar genuke herriarrok eta behar diren baliabideak exijitu, politikariei. Triste da baina herri bakoitzean indarkeria matxistaren ondorioz eraildako emakume bat egon arte ez al gara guztiok mugitzen hasiko ala? besarkada bat Bizkaitik!».

■ **Lopez.** «Hiru pertsona hauek bizi ziren txabola baldintza negargarrietan dago: saguak, sasiak hartuta, zikinkeria... Lehen ere burua ireki zion ustezko hiltzailetako batek besteari. Berriz ere jendea txabolan bizitzera sartu aurretik: bota dezatela, mesedez!».

Tolosa CFkoak bikain pista estalikoetan

ERREDAKZIOA

Pasa den asteburuan, Pista estaliko Euskadiko txapelketa jokatu zen Donostia eta Gasteizen. Kadete, jubenil, junior eta beteranoen mailako korrikalariak hartu zuten zuten parte norgehiagokan. Tartean izan ziren Tolosa CFkoak, eta emaitza oso onak lortu zituzten.

Juniorretan, 200 metroan, Xabier Artiedak irabazi zuen. Aitor Zabala berriz, hirugarren sailkatu zen. 400 metroan Iker Epelde bigarren geratu zen.

Proba ezberdinak jokatu ziren toki bakoitzean, eta esaterako, 60 metro hesietan, Xabier Leunda hirugarren geratu zen sailkapenean 8 segundo eta 61 ehunen-eko denborarekin. Espainiako txapelketa guxtiengo marka jartzea lortu du gazteak.

Jubeniletan, Patxi Elosegi garai izan zen luzerako jauzian, baita 60 metroan ere. Aitor Arraiza pisua jaurtitzen onena izan zen eta Iruñe Agirrezabala berriz, 60 metro hesietan, eta luzerakoan izan

zen garaile. Ohiana Pelaezek ere urrezko domina eskuratu zuen pisu jaurtiketean, eta Jabi Tolosa laugarren geratu zen 60 metro hesien proban. Kadete mailakoak ere ongi aritu ziren, nabarmenezkoa

da Maria Ezquerro, Ainhoa Rueda eta Mikel Alceyay lortutako garai-penak. Bestalde, beteranotan, 55 urtetik gorakoen mailan Juan Carlosen proban. Kadete mailakoak irabazi zuten 60 metroetako lasterketa.



Tolosa CF taldeko maila ezberdinetako korrikalariak hartu zuten parte. HITZA

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Autoa.** Honda Civic (bi urte) gorria salgai. 42.000 kilometro ditu. Interesa duenak deitu ondorengo telefono zenbakira: 628 99 90 87.

GALDUTAKOAK

■ **Argazkiak.** Eguberrietan kartulina beltz bat galdtu nuen Tolosako Alde Zaharrean, argazki eta

kopia batzuekin. Azalean Karlis dendaren izenarekin. Aurkitu duenak mesedez deitu dezala 653 792 46ra.

■ **Berokia.** Tolosan, Kikara tabernan, hilaren 5ean mutilen bi beroki beltz nahastu ziren. Nirea (Crazy markakoa) daukanak deitu dezala 686 87 04 07 telefono zenbakira.

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nafarroa etorb. 13 behean - TOLOSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13

@ **Irudietan.** Urtea zuriz jantzita hasi dute eskualdeko herri gehienek, elurrak utzitako paisaia zoragarriak TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariko webgunean aurkitu daitezke atal honetan:

www.tolosaldeko-hitza.info

Laburrak

Txararretako ordezkariei bilera izango da etzi

KULTURA » Etzi iluntzean, datorren hilean ospatuko diren inauterietan parte hartu behar duten txararretako bilera izango da. Jai batzordeak deituta, 19:00etan hasiko da bilkura, eta Kultur Etxean izango da. Hori dela eta, Udalekoek dei egiten diete txararretako ordezkariei, ekitaldian parte hartzeko.

Deabruak Teilatuetan Bilbon izango da bihar

KULTURA » Deabruak Teilatuetan talde tolosarra zuzenean ikusteko eta entzuteko aukera izango da bihar Bilbon. Donostiako Dokan egindako festa errepikatzen asmoz bertaratuko dira Deabruak eta Colemans+ taldekoak Kafe Antzokira. Saioa 21:30ean hasiko da. Sarrerak jada salgai daude Kafe Antzokian eta antzokiko webgunean bertan. 1973 diskoaren biraren azkenetan dauden honetan, Peiremansen doinuak gogora ekarri eta abesti berriak eskainiko ditu Colemans+ taldeak. Deabruak Teilatuetanekoek azken aleko kantuek eta disko zaharretako abestiak tartekatuko dituzte.

T Telefonoak

Larrialdia. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldeko bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

AAMk bat egiten du euskal presoek hasitako borrokaldiarekin

Villabona » 2010. urtea borrokaldi berrituarekin hasi dute presoek, hori dela eta itxialdia egingo dute hilak 22 eta 23an Gurean.

ERREDAKZIOA

Euskal presoek jasaten duten egoera dela eta Euskal Preso Politikoen Kolektiboak borrokaldia hasi du.

Honen harira Villabonako euskal preso guztiek ere itxialdiak egin dituztela argitu du herriko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak.

Itxialdia

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak abiatu duen borrokaldiarekin bat egin du Villabonako AAMk eta beraz itxialdia egingo dute Villabonan hilaren 22tik 23ra.

Hilaren 22an, 20:00etan elkartuko dira Gurea Antzokian eta batzar irekia egingo dute. Borrokaldiaren azalpena eta senideen testigantza izango dira. Jarraian, 21:00etan, afaria egingo dute eta 22:00etan lan taldeetan bildu eta gai ezberdinak jorratuko dituzte. Larunbatean berriz, 09:00etan gosalzten hasiko dira eta behin indarrak hartuta, 10:00etan kotxe karabana eta etxex etxeko banaketari ekingo dute. 12:00etan kontzentrazioa egingo dute eta itxialdiari amaiera 14:00etan egingo dute bazararekin emango dute.

Espetxeetako gertaerak

Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak azken boladan, preso senideei bisitetan jartzen dizkieten oztopoak ere salatu ditu.

«Inigo Guriidi, Granadan dago preso eta bisean bisekorik gabe geratu zen bere senideak miaketara ukatu zirelako. Julen Zelarain Huelvan dago eta bere seme-alabak ez bisean bisekoa, ez eta bisita ezin izan zituzten egin bietarako miaketa egitea eskatu zirelako. Eneko Galagarra Ocañako espetxean dago eta bere senideekin hiru bisean biseko galdu ditu, pasa beharreko miaketak direla eta.



Villabonan euskal preso politikoen eskubideen alde egindako elkarretaraztea. G. AZKUE

Emilio Salaberria Curtisen dago preso eta itxialdian dagoenez, bere senideei aurrez aurrekoa egiteko itxialdia eskatzen diotelako. Mikel Garmendia, Herrera de la Mancha dago eta bisik gabe dago, bere senideei miaketak egin uzten direla esanez paper bat sinarazi nahi diotelako», argitu du Villabonako AAMk.

Deialdi orokorra

Presoek 2010. urteari hasiera borrokaldi berrituarekin eman diote, hortaz. Izan ere, hilaren 11tik, EPPK osatzen duten euskal presoek, Espainia eta Frantziako espetxe guztietan itxialdian sartuko di-

relairagarri nahi izan dute eta baita datozen egun eta asteetan zein itxialdi joko duten ere.

Komunikazio astea, itxialdi astea, salaketa astea, barau astea, dinamika iraunkorra eta ibiltaria, miaketen erasoei erantzuna, aurrez aurrekoen greba edota espetxeetan planteatzen izango dira jarraituko dituzte bideak. Dagozkien eskubideetarako askatasunerako duten eskubideak nabarmendu nahi dute.

Salaketarekin batera, «gure kidegoaren parte inportante eta zabal modu ezin krudelagoan bahiturik» aurkitzen dela erakutsi nahi dute, horretarako «berariaz asmatuko lege, arau eta trikimailuei

esker». Ez dira behin eta berriro gogoratzeaz aspertzen: «Gaixo eta larri ditugun gure kide guztiak berehala kaleratuak izan daitezten exijitzen dugu. Heriotzaren korridoretik atera ditzatela».

«Baldintzapeko askatasunean kaleratuak izateko bere unean tribunal arrotzek ezarritako zigorraren denbora aisa gaindituta duten gure kideak berehala kaleratuak izan daitezten exijitzen dugu», gaineratu dute.

Era berean, «errealitate larri eta onartezin honi» irtenbidea ematearen ardurua Gobernu espainiarrari eta frantziarrari dagokiela ere nabarmendu dute.

Remi Ayestaranen plaka agertzeko ekitaldia

Villabona » Igandean, Oria ibaiaren ertzean dagoen ibilbideari izena emango dion plaka erakusteko ekitaldia egingo dute.

ERREDAKZIOA

Igandean, hilaren 24ean, eguerdiko 12:00etan Villabonako Udalak, ezker abertzaleko zinegotzi taldearen bitartez, Remi Ayestaran Villabonako alkate ordearen ohoretan bera zendu zen ibilbidean eki-

taldia egingo du. Igandetik aurrera, Oria ibaiaren inguruan dagoen ibilbideak Remi Ayestaran izena hartuko du, beraz.

Bertan Udalak gonbidatuta, udal karguez gain bere senide eta lagunek parte hartuko dute.

Remi Ayestaran hil ondoren egindako pleno berezian egin zuen herritar talde batek proposamena, eta ondoren Villabonako Udalak garatu egin du. Gainera, herritar guztiak bertan parte hartzea gonbidatu nahi ditu herriko Ezker Abertzaleko Udal taldeak.

Saharara bidaltzeko elikagaien bilketa, larunbatean

Aduna » Kontsejupean jarriko dute postua 11:30etik 14:00etara eta gerturatzendak pintxoak ere izango du.

ERREDAKZIOA

Saharako kanpamenduetara bidaltzeko elikagai bilketa egingo dute hilaren 23an. Kontsejupean jarriko dute horretarako postua, 11:30etik 14:00etara. Laguntza ematera hurbiltzen direnek, pintxogoxoa eta edaria jasoko dute.

Aurten ere, atuna eta sardinak oliotan, azukrea, arroza, pasta, lekaleak eta kompresak eskatu dituzte. Bildutako guztia, otsailen bidaliko dute Saharako errefuxiatuen kanpamenduetara.

Gizarte eragileen laguntza behar du Tolosako Arraun Klubak

Tolosa » Kanpaina berria hasi dute dirua bildu eta arraunaren aldeko lanean jarraitu ahal izateko.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Arraun Klubaren helburua, Tolosaldean arrauneko afizioa berreskuratzea izan da eta era berean, harrobia sortzea eta San Joanetako estropadetan egoitea. Helburu hauek handitzen joan dira eta erreferente eta eredu bilakatu da klubak.

Tolosaldeko gazteek arrauneko kategoria guztietan lehiatzen dira. Nesken trainerua, arraun eskola... Honelako proiektu batek gizartearen laguntzarik gabe ez du bideragarritasunik. Diru laguntza edo bakoitzak ahal duen ekarpena, 2054 2058 04 9157530081 kontu korronte zenbakian egin daiteke.

Hilberria

MARGARITA IBARGUREN IBARGUREN

Umoretsu zinen guztien gainetik, borondatea ere ez zenukan faltik nahiz eta urrun joan mundu honetatik ez dezu alde egingo gure bihotzetik



Zarauzko zure lagunak

ZARAUTZ
2010eko urtarrilaren
20a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95



Julian Gaiarre guneko lanak, amaituta

IBARRA ■ Pasa den astean «bukatzear» zeuden eta azkenik amaitu dituzte Julian Gaiarre guneko era-berritze lanak. Konponketa lan ugari egin dizkiote kaleari; besteak beste, traba arkitektonikoak ezabatu dituzte, argiteria aldatu dute, hiri-altzari berriak jarri dituzte, ibilgailuen bidea asfaltatu dute, garai bateko ikuztegia konpondu dute eta saneamendu sarea ere hobetu dute. Azken batean, irisgarritasun baldintzetara egokitu dute gunea. Pasa den urtean Espainiako Gobernua udalei emandako diru laguntza horretara bideratu dute, «behar handia zegoelako aspalditik». N. LATABURU

«Txapinak ez kentzeko» jaia antolatu dute larunbaterako

Tolosa ■ Gazteek Txapinetan elkarteak eta Inpernu Gaztetxeak antolatuta, festatxoa egingo dute gazteek.



lazko Txapin Festaren une bat. E. E.

ERREDAKZIOA

Tolosan baino ez omen da erabiltzen txapina hitza. Baina poliki-poliki hitza bera ezagun bihurtu dute herriko hainbat gaztek. Eta hitzarekin batera, euren eman nahi izan dioten esanahia ere egiten ari da ezagun, «herriko gazteak elkartu eta elkarrekin festa giroa

» HAINBAT DATU

Non eta noiz

■ Urtarrilaren 23an, larunbata, Inpernu Gaztetxean.

Egitaraua

■ 17:00. Koadrilen arteko patata tortilla lehiaketa. Bitartean, bertolariak izango dira.

■ Gauean. Afaria eta kontzertuak: Gargantas desgarradas.

ditu, hori bai, sariak izango direla ere aurreratu dute antolatzaileek. Bertsolariek girotuko dute giroa arratsaldean zehar. Iluntzean, berriz, arratsaldean egindako jakia jateko aukera izango dute. Eta horrelako festak eskatzen duen bezala, ezin musika falta. Gargantas desgarradas taldearen eskutik jango da osagai hau.

Hitzordua Inpernu Gaztetxean

Jai guztia Inpernu Gaztetxean egingo dute. Honek ere badu bere garrantzia, «sortu berri den mugimenduari bultzada ematea garrantzitsua» delako, Izagirreraren esanetan.

Txapin Festa maiatza aldera antolatu ohi dute gazteek, baina «ekintzak urte guztian zabalitzea» dute helburu. Era hauetako ekitaldi gehiagorik antolatzea da, hortaz, gazteen asmoa. «Herriko hainbat gazte elkartzan hasi ginen eta egun bakarrera ez mugatzea garrantzitsua zela ikusi genuen». Txapin Festa, hala ere, mantendu egingo dute «formatua pixka bat aldatu arren».

sortzea», Manex Izagirre antolatzaileak azaldu bezala. Ziurrenik, txapinetan baleude bezala, etxean sentituko dira larunbat honetan Gazteek Txapinetan elkarteak eta Inpernu Gaztetxeak antolaturiko festatxoan parte hartzen dutenak.

Hain zuzen, larunbat arratsaldean ekingo diote festari. 17:00etatik aurrera koadrilen arteko patata tortilla lehiaketa egingo dute. Horretarako ez da beharrezko aurrez izena ematea, azaltzearekin nahikoa izango da.

Tortillarako osagaiak (arrautzak, patatak, zartagina, kanpin-gasa,...) norberak eraman beharko

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlana, mobilizazioetan

Azpiegiturak ■ Larunbat honetan Irun eta Hendaian egingo den manifestaziora deitu du; otsailaren 6rako ere antolatu dute protesta.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak datozten asteetarako mobilizazioetan parte hartzeko deialdia luzatu du. Lehenengo, larunbat honetan bertan izango da, Irun eta Hendaia artean egingo den manifestazioan. Bigarren, berriz, Tolosan egingo dute, kaldereroen egunean. Otsailaren 6an izango da, beraz, Triangulotik abiatuta, 17:00etatik aurrera.

Trenaren ibilbidea eskualdetik

«2010a oso urte berezia izango da, desjabetze prozesua hasi delako», gogoratu dute elkarlanetik. Alegia-ko desjabetzeak, esaterako, bihar bertan egingo dituzte, Foru Aldundian.

Trenak eskualdean izango duen eragina ere aztertu dute Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanetik. Ikaztegieta, Alegia, Tolosa, Hernialde, Anoeta, Asteasu, Zizurkil eta Aduna herriek jasoko dute Abiadura Handiko Trenaren eragina, 19 kilometroan zehar. Hauek 13 kilometro tunelak izango dira: Adunatik Belkaingo tunela, Anoeta eta Zizurkil artean, Montezkue, Aldaba Txiki eta Hernialde zeharkatzen dituzten 1,5 km-ko tunelak, kilometro bat inguruko Langaurreko tunela Alegian eta Urkamendikoa, Zizurkilan.

«Zergatik esan ezetz proiektuari?»

Arrazoi ugari ikusten ditu AHT Gelditu! Elkarlanak proiektuari ezetz esateko; besteak beste, «trafiko saturazioa ez duelako gutxituko, herriari ez zaiolako galdetu zer nahi duen, nekazal mundua gutxietsi eta zapaltzen delako, txiki-zoi ikaragarria suposatzen duela».

▣ Laburrak

Inauterietako dantzen entseguak, etzi

LIZARTZA ■ Lizartzako Inauterietako ate joka direla-eta etzi, hilaren 22an, lehen Inauterietako dantzen entseguak antolatu dituzte. Parte hartzen duten eta parte hartu nahi duten guztiak egin diete deialdia arduradunek, eta ostiralean 20:30etik aurrera, ohiko lekura azaltzeko eskatu dute.

PPK Udal funtzionarioen kopurua jaisteko eskatu du

ZIZURKIL ■ Alderdi Popularreko Raul Vazquezek mozioa aurkeztu du Udalean. Bertan Udalaren menpe dauden funtzionarioen kopurua %50ean jaistea eskatu du, «egungo krisi egoerari irtenbidea emateko». Hori lotuta, murrizketa hauek enpresa pribatuei ematea proposatzen du.

Atxiloketa, autokarabana batean lapurtzea egotzita

IRURA ■ 20 urteko mutilakoa atxilotu zuen Ertzaintzak pasa den asteburuan, ustez autokarabana batean lapurtzen ari zela. Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak azaldutakoaren arabera, leihatilak behartuta lortu zuen barrura sartzea. Etxezarreta kalean aparkaturik zegoen autokarabana.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



laz bezala, aurten ere eskean ibiliko dira Leitzako baserri-bordetan. Ihoteetako lehen egunean berriz, kalean ibiliko dira mozorroturik 'eskelariak'. ASIER IMAZ

Gatza eta piperra herritarren kontu

Leitza » Ilbeltzen 23tik 26ra lhoteak ospatuko dituzte. Mozorroak, gurdiak, atsaurek, 'eskelariak',... jada prest aurkitzen dira.

ASIER IMAZ

Gainean ditugu jada Leitzako *Pesta Txikitik*. Umorea herritarrek eta gerturatzaren direnek jarriko dute, eta eguraldia... eguraldia iazkoa baino hobea izango al da. Hala eta guztiz ere horri aurre egiteko «norberak jarri behar gatza eta piperra».

Mozorroak, gurdiak, atsaurek, txaranga... dena prest dago, azken orduko ukituen faltan, noski. Hilaren 23tik 26ra bitarte, lhoteez gozatzeko aukera edukiko dugu beraz Leitza.

Ihoteen hasiera ekitaldia Aurrean egingo dute larunbatean, 14:00etan, *Eskelarien* bazkariare-

kin. Euskal usadioei jarraituz, gauza handiak mahai inguruan ospatzea beti izaten baita ona.

Haurrak eta gazteak zer?

Txu-txu trenan ilbeltzen 24ean irtingo da kalera 12:00etan. Astelehen ihotean berriz puzgarriak edukiko dituzte 16:00etan eta azken egunean, hilaren 26ean, Xur-dinen ikuskizuna eskolako jangelan. Arratsaldean berriz kalejiran irtingo dira. Gazteek kalean eta gaztetxean ibiliko dira. Atekabeltzen karaokea antolatu dute lehen egunean, 02:00etan. Azken egunean berriz, The Sparteens-en kontzertua izango da.

» EGITARAUA

Ilbeltzen 23a, lhote aurrea

- **14:00etan.** *Eskelarien* bazkaria Aurrean. Eskean ibiliko direnentzako otordua. Ondoren txistulari, trikitilari, akordio jole eta abarrek inbiltzeko indarberritu egin behar!
- **16:00etatik 20:00etara.** Eskea herriko etxeetan barrena.
- **02:00etan.** Karaokea Ateka-beltz gaztetxean.

Ilbeltzen 24a, Zaldun ihote

- **12:00etan.** Atsaureak eta gurdiak ohiko buelta emanen dute herriaren barrena, txaranga lagunduta.
- **12:00etan.** Txu-txu trenan ibiliko da herrian.
- **14:30etan.** Atsauren herri bazkaria. Ondoren kalejira txarangarekin.
- **16:00etan.** Txu-txu trenan.

- **19:00etan.** Garraxi taldearekin musika karrapean.
- **23:00etan.** Garraxi taldea karrapen.
- **Ondoren.** Inkansables txaranga-ekin itzulida herrian barrena.

Ilbeltzen 25a, Astelehen ihote

- **09:00etan.** Baserrietako eta bordetako eskea: Gorritaran, Sakulu, Erreka eta Arkixkil auzoetan barrena.
- **16:00etan.** Umeentzako puzgarriak.
- **19:00etan.** Gaubela taldearekin musika karrapen.
- **23:30etan.** Atsedendiairen ondoren berriro Gaubela taldearekin musika karrapen.
- **Ondoren.** Inkansables txaranga herrian barrena.

Ilbeltzen 26a, Astearte ihote

- **09:00etan.** Erasote auzoko borda-baserrietako eskea.
- **11:30etan.** Umeentzako Xur-dinen saioa eskolako jangelan.
- **14:30etan.** Aurrean bazkaria.
- **17:00etan.** Umeen kalejira txaranga-ekin, ondoren txokolate jarraipen.
- **18:30etan.** Leitzeko atsaureak eta txistulariak; herrian barrena kalejira... Berreskura ditzagun lehengo jantziak eta pestak!
- **19:00etan.** Gaubela taldea karrapen.
- **23:30etan.** Atsedendiairen ondoren, Gaubela taldea karrapen.
- **Ondoren.** Inkansables txaranga
- **24:00etan.** The Sparteens taldearen kontzertua Ateka-beltz gaztetxean.

Denborak emanen do bere epaie



» Herrira begira

Aimar Sagastibeltza
Futbol jokalaria

Beno, oharkaben denboraldin erdie pasa da, balorazioak itteko garai egokie. Hogei partidu jokatu ondoren Ligan bigarren gau-

de; liderretik bost puntuta eta igogera-faseko postutan hiru puntuko tartetxoekin.

Puntu gutxin barrenen talde dexente gaudenez, dena bigarren itzuli hontan erabakiko dela iarrizten ezta zalle. Gañea, malla hontan gehien balio duenak azkeneko hamar partiduk izaten die.

Hau jakinde, egitazko momentun sartzen ai ga, laxter jakingou «alde-aldeko» taldea gan edo ez. Denborak emanen do bere epaie, beño zalantzak dauzket...

Pertsonalki, momentuz dena jokastu, nahiz ta lau jokalarit fitxatu

berri dituen gero ta konplikatu goa den.

Taldee daokionez, tokatzen den eunetan patzen ai zaizkiutea, gañontzeko lekutan situazioa nola daun aintzat hartute gauz inportantea oso, ezin ukatu. Ikatuko ziñeteke jokalariri patu gabe kiinka larrin dauzen ekipoa emana jakingo baziñue... «Txolloa» bukatzen ai da.

Bestalde, Leitzea joateko aukera dexente izan dittot azkenaldin, egueldi txarra zela medio partidu pare bat atzeatu baitzaizkui. Izane, harrigarrie da Teruelen sarriten

itten don hotza. Tarteka bildurgarrie. Askok esan ditea Teruelgoa hotz lehorra denez aise aguantatzen dela; zero azpitik 15º daudenen hemen baleude, ez lieke aiko hain arin hitzeitten. Gañea haize dexentea ibilli ohi de eta honen eragiñez «sentsazio termikoa» zero azpitik 23ºkoa izatea aiatu da! Entrenatzeko ordun eragozpena da. Tarragonako udako «bero hiñe» ezta earra, beño hau... Oaingoatik earki zailduko naiz jeje.

Eguerritako eonaldie aprobetxatuz, Inaxio Perurenak 300 kiloko harriri indako altxaldi saikera ikusten izan nitzan Asteasu. Ze pena! Beño beno, laxter goatuko do, bistekoa da denboa bere alde dula.

Aurre hontan, berriz, gozatu aldie hartu nun Oinatz Bengoetxeak Tolosan jakatutako partidue ikusiz, nahiz ta asteburu hontan aldrebes izan. Txapelketa hasi besteik ezta in, beño irabazten joatea hobe...

Bestetik, laun miñe doten Mikel Nieve Australin daukeu bertako itzulin. Despistatu antxa da ta ez ote zaiu galduko han! Jeje. Bromak utzite, suertek launtzen badio aurtent zeresana emanen don iduittue dot.

Beharbada lekuz kanpo eonen da, beño hil berrie zaiten attuna, *Martin besamotxa*, attatu gabe ezin dot utzi. Nahiz utzi hutsune nabarmena, bizik dauku zure oroi-mena attuna.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo.
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Villabona.** Maskarada taldearen Ohean antzezlanaren ostiralean, hilak 22, Gurea aretoan 22:30ean.

» TELEBISTA

28 Kanala

08:30. Ur eta lur. **09:00.** Alex eta Alexis. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Klik. **10:30.** Ilunpean. **11:00.** Erlo klip. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Lacrymosa abesbatza. **12:30.** Zahar berri. **13:00.** Muka muka. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Klik. **14:30.** Ilunpean. **15:00.** Erlo klip. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Lacrymosa abesbatza.

(*16:30etik 20:00etarako blokea lau orduko errepikatuko dute)

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Ollarrea, J. Korreoa kalea, 2. 943 67 0128.
■ **Lekunberri.** Azpiroz M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.



Lanean gogor Zaldunita buruan dutela

TOLOSA ● Askorentzat Inauterietako egunik politena igandea izan ohi da; Zaldunitan kaleak karrozez betetzen dira. Tolosak itsura hori eduki dezan, ordu asko sartu behar izaten dituzte gehienek. Egun hauetan Ferialekua da horren lekuko, bertan ari baitira tolosarrak eta inguruko herrie-

takoak lanean. Mozorroekin batera eramango dituzten auto, kamioi txiki edo plataformak bertan ari dira moldatzen. Hori bai, bakoitza zertaz irtingo den esatea ez litzateke zuzena izango. Tolosako Inauteriek duten ospea neurri batean ere hortik dator, ezusteko faktore horretatik. A. IMAZ

A Agurrak



Zorionak!

Xuban Otero (Anoeta). Zorionak eta 7 muxu handi etxekoan partetik!



Zorionak, gaur 6 urte!

Harriet Martin Kortajarena (Zizurkil). Muxu handi bat etxekoan partetik! Aupa futbolista!

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera, Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P,K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>